

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

“Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorea eraikitze proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2025eko ekainaren 25ean egindako bilkuran, 377/2025 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorea eraikitze proiektuaren” eraginpean dauden ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egon zen bitartean haren aurka aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna. Behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presazko okupazioa adieraztea. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 8ko 570/2024 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorea eraikitze proiektua; hasierako onespena eman zitzaion proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendari, eta zerrenda hori jendaurrean jartzeko agindu zen.

Ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 683/2024 Erabakiaren bidez, aldatu egin zen proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda.

Jendaurrean jartzeko informazio aldian, alegazio idazkiak aurkeztu dituzte desjabetze espedientean 10/000, 11/000 eta 12/000 zenbakiekin identifikatutako finken jabeek, 1/000 eta 4/000 finken titularraren jaraunsle batek, bai eta ADIFek ere. Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak eta Lege eta Administrazio Zerbitzuak haien berri eman ondoren, Natura Ingurunearen Zuzendaritzak eta Bide Azpiegituren Zuzendaritzak onartu dituzte, Gobernu Kontseilu honek bere gain hartu ditu, akordio honen euskarri eta motibazio gisa balio dute eta alegaziogileei bidaliko zaizkie, beren eskaerak baietsi edo ezetsi direla arrazoitzeko.

Aurreko izapidea bete ondoren, eta desjabetze administrazio honek eskatuta Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Jabetza Erregistroak jabari eta kargen ziurtagiriak eman ondoren, onespena eman behar zaio proiektu honen eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, zeina eraginpeko finken titulartasuna eta aprobetxamenduak kontuan hartuta taxutu baita.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakoa dela adierazi behar dela. Horiek horrela, Natura Ingurunearen Zuzendaritzak jakinarazi du Manzanos guneko biztanleria goiko auzoaren eta trenbidearen inguruan dagoen beheko zonaren artean banatzen dela, eta hango hondakin urak arazteko, zona horietako bakoitzerako hainbat hobi septiko independente dituela, baita beste arazketa sistema pribatu batzuk ere ibaiaren ondoko uholdeetarako. Efluenteen isurketak Zadorra ibaira iristen dira, zeina Arabako eremu babestuen inbentarioan ZADORRA IBAIA KBE gisa sartuta baitago (ES 2110010.)

Gaineratu duenez, arazketa sistema horiek zaharrak dira, arazteko ahalmen txikia dute eta ez dituzte betetzen indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen isurketa parametroak. Hori dela eta, une honetan kolektore bat eraikitzea planteatzen da, herriaren goiko aldeko isurketak gu-neko gainerako isurketekin bateratu ahal izateko, zeinari araztegi berri bat emango baitzaio, batera tratatzeko.

Ondorioz, oraingo isurketa guneak kenduko dira eta Manzanosko hondakin uren tratamendu hobe bermatuko da, eraginkortasun handiagoko arazketa sistema bat egongo baita, efluen-tearen kalitatea hobetuko duena eta, ondorioz, egungo egoeran hobi septikoekin gertatzen den ingurumen arazoa eta osasun publikoko arrisku arazoa konponduko duena.

Horrenbestez, Manzanosko goiko auzoko hondakin urak behar bezala tratatuko direla ber-matzeko, beharrezkoa da premiaz okupatzea "Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolekto-reara eraikitze proiektuaren" eraginpean dauden ondasun eta eskubideak.

Premiazko adierazpenaren izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, bat etorritz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178.2 artikuluekin.

Eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 19.472,27 euro da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren xede den herrilana proiektatu eta gau-zatzeko, honako hauek xedatutakoari jarraituz: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen api-rilaren 2ko 7/1985 Legearen 31.2 a) eta 36. artikulua; toki araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testuategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta lurralde histori-koetako foru organoen arteko harremanen azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 a.10 artikulua.

Eskumen hori egikaritzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1 arti-kuluan. Halaber, esan behar da ezen, erakunde honen barne eremuan, Foru Gobernu Kontsei-lua dela organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta haiek okupatu beharra onesteko, hala xedatzen baitute honako hauek: Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Lege Araubidearen martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.c).7 artikulua.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den aurre-kontu kreditua badagoela jaso baita.

Horregatik, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak eta Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Erantzuna ematea "Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorea eraiki-tzeko proiektuaren" eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egon bitartean aurkeztutako alegazioei, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak eta Lege eta Administrazio Zerbi-tzuak emandako txostenen arabera baietsiz edo ezetsiz.

Bigarrena. Onespena ematea proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, zeina erabaki honen eranskinean jaso baita.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Laugarrena. Presazkotzat jotzea erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunen eta eskubi-deen okupazioa eta, hori dela eta, desjabetze espediente Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatzen duen presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Bosgarrena. 19.472,27 euro esleitzea Arabako Foru Aldundiaren 2025eko aurrekontuko "50106. G/453501/60000506 desjabetze hidraulikoak" aurrekontu aplikazioaren kontura, eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagoen balio justuaren zenbatekoa ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako aurrekontu aplikazioaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Zazpigarrena. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta/edo aldaketak egin ahal izateko, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontua betearazteko dagokion foru arauak.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Erriberabeitiako Udaltxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legeko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 25a

Bide Azpiegituren zuzendaria

MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mugikortasun Jasangarriaren eta
Bide Azplegituen Saila
Departamento de Movilidad Sostenible
e Infraestructuras Vitarias

PROIEKTUA / PROYECTO
Manzanosko hondakin urak bateratzeko kolektorea eraikitzeko proiektua
Proyecto constructivo de colector para unificación de las aguas residuales de Manzanos
ERANSKINA / ANEXO
Udal Mugartea / Término Municipal: Ribera Baja / Erriberabetia

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK			APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²				EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA			BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA			
			DATOS CATASTRALES					Saneamendu akuedukua (3 m)			
			POLIGONO	PARCELA				SERVIDUMBRE			
								DEFINITIVA	TEMPORAL		
Nº FINCA	TITULAR				APROVECHAMIENTO					DIA	HORA
14/000	SOMALO RODRIGO, BENITO CAJA LABORAL POPULAR COOPERATIVA DE CREDITO	1	879		Bizitegi-lurzuu urbanizatua / Urbanizado Residencial	4	231	54		14/07/2025	10:00
1/000	FERNÁNDEZ DE OLANO ORTIZ DE URBINA, JESÚS ANTONIO FERNÁNDEZ DE OLANO ORTIZ DE URBINA, MARIA BEGOÑA FERNÁNDEZ DE OLANO ORTIZ DE URBINA, JUAN JOSÉ FERNÁNDEZ DE OLANO ORTIZ DE URBINA, MARIA CONCEPCIÓN	1	858		Bizitegi-lurzuu urbanizatua / Urbanizado Residencial	4	628	139		14/07/2025	10:45
4/000	FERNÁNDEZ DE OLANO ORTIZ DE URBINA, JESÚS ANTONIO FERNÁNDEZ DE OLANO ORTIZ DE URBINA, MARIA BEGOÑA FERNÁNDEZ DE OLANO ORTIZ DE URBINA, JUAN JOSÉ FERNÁNDEZ DE OLANO ORTIZ DE URBINA, MARIA CONCEPCIÓN	1	1173		Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	4	1.131	211		14/07/2025	10:45
13/000	GUINEA LANA, FERNANDO GUINEA LANA, M. ISABEL GUINEA LANA, ESTHER	1	1150		Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	4	1.137	22		14/07/2025	12:15
3/000	LANA PEREZ, ESTHER LANA PEREZ, LIDIA GUINEA LANA, FERNANDO GUINEA LANA, M. ISABEL GUINEA LANA, ESTHER	1	2856		Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	4	138	30		14/07/2025	12:45
6/000	LANA PEREZ, ESTHER	1	2578 - a		Labore ureziatua / Tierra de labor regadio	0	252	52		14/07/2025	13:15

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²				EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA			
							Saneamendu akueduktua (3 m)			
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m²		SERVIDUMBRE Acueducto de saneamiento. (3 m)	DÍA	HORA	
		POLIGONO	PARCELA		DEFINITIVA	TEMPORAL				
10/000	FERNANDEZ DE LARREA PINEDO, ANA MARIA	1	927	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	2.249	171	15/07/2025	10:00	
11/000	FERNANDEZ DE LARREA PINEDO, ANA MARIA	1	931	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	4	244,74	64	15/07/2025	10:00	
12/000	FERNANDEZ DE LARREA PINEDO, ANA MARIA	1	932	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	278,96	0	15/07/2025	10:45	
9/000	RUBIO GALAN, M.LOURDES	1	2674	Larrea B / Pasto B	4	1.209	216	15/07/2025	12:00	
2/000	RODRIGO SALAZAR, VICENTE	1	2857	Labore ureztatua / Tierra de labor regadio	8	1.099	208	15/07/2025	12:45	
5/000	RODRIGO SALAZAR, VICENTE	1	1160	Labore ureztatua / Tierra de labor regadio	4	253	48	15/07/2025	12:45	
7/000	ALISEDA SA	1	1159	Labore ureztatua / Tierra de labor regadio	0	694	160	15/07/2025	13:15	
8/000	ALISEDA SA	1	1158	Labore ureztatua / Tierra de labor regadio	8	1894	458	15/07/2025	13:15	